



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

LANKIDETZA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO DIRU- LAGUNTZAK OINARRIAK 2024

ESKAERAK AURKEZTEKO IRIZPIDEAK

Proposamenen aurkezpena

- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako Ordezkaritzako Zuzendaritza Batzordeak erabaki du Lankidetza eta Garapen Proiektuak aurkezteko epea irekitzea, horretarako dagoen Ordezkaritzaren aurrekontu-sailaren kargura.
- Diru-laguntzetarako partida LAU MILA EUROKOA (4.000 €) da, eta proiektu bakar baterako erabili ahal izango da edo aurkeztutakoen artean banatu.
- Proiektuaren ezagutza duen arkitekto kolegiatu batek aurkeztu behar ditu proposamenak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Gipuzkoan duen ordezkaritzan, eta ez zuzenean diru-laguntza jaso nahi duen erakundeak.
- Proiektuak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako ordezkaritzaren behin behineko egoitzan aurkeztuko dira (Urumea pasealekua 2, behea – B Lokala, Donostia) edo idazkaritza@coavngipuzkoa.eus helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.
- Proiektuak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 22an amaituko da.



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

Gaiak eta balorazio irizpideak

- Espainiako estatuan nahiz beste batzuetan egingo diren lankidetzak eta garapen proiektuak.
- Aurkeztutako proposamenek arkitektura, **etxebizitza, azpiegiturak, nekazaritza, ingurumena, hiri-garapena, landa-garapena** eta abarrekin zerikusia izan beharko dute. Proiektu integralak izan beharko dute, tokiko garapen ez-mendekoa, parte-hartzailea eta jasangarria sustatzen dutenak, ingurumena errespetatuz.
- Era berean, eta ikusirik emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunek duten eragina, bereziki egoera ahulean daudenek, proiektuek horri buruzko berariazko ekintzak planteatu beharko dituzte, desberdintasun horiek argitu eta horiei aurre egiteko.
- Tokiko komunitateak parte hartu beharko du aurkeztutako proiektuetan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Espainiako estatuan egoitza duten irabazi asmorik gabeko **fundazio, elkarte edo erakundeek** egin beharko dituzte proiektuak.
- Proiektuaren segimenduaz eta ikuskapenaz arduratuko diren pertsonak zein diren adieraziko da. Horretarako, proiektua garatuko den tokian proiektua gauzatuko duen pertsona, elkarte edo erakundea ezagutu eta identifikatzeko behar diren datuak emango dira.



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

- Laguntzaren xede den proiektuaren deskribapena, ekintza zehatzak eta aurrekontua biltzen dituen txostena aurkeztuko da. Dokumentuak gehienez ere 10 orrialde izango ditu, 11 letra-tamaina dutenak eta lerroarte bakunekoak.
- Proiektuaren Laburpena izeneko eranskinean azaltzen da, orientabide gisa, aurkeztu beharreko informazioa.
- Proiektuak lortutako edo aurkeztutako beste diru-laguntza batzuk baloratuko dira. Horretarako, eskatutako eta/edo emandako laguntzen zinpeko aitorpena aurkeztuko da.
- Antzeko ezaugarriak dituzten 2 proiekturen aurrean, lehentasuna izango du aurretik Elkargoaren diru-laguntzarik lortu ez duenak.

Diru-laguntzen ematea. Esleitutako zenbatekoa ordaintzea

- Horretarako izendatutako Zuzendaritza Batzordeko kideek aztertuko dituzte epean aurkeztutako proiektuak. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Gipuzkoan duen ordezkartzako Zuzendaritza Batzordeak azken erabakia hartuko du, aurkeztutako proposamenen artean laguntza nori ematen zaion erabakitzeko.
- Diruz lagundutako jarduerak gehienez ere **12 hilabeteko epean burutu beharko dira**, ebazpena ematen denetik hasita.
- Diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, diru-laguntza ordainduko da.
- Deialdia eman gabe gelditzen bada, Zuzendaritza Batzordeak GKE edo erakunde egokiari esleitu ahal izango dio ezarritako zenbatekoa.

Diruz lagundutako ekintzen jarraipena eta justifikazioa



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

- Proiektua burutu ondoren, horren **justifikazio ekonomikoa** aurkeztu beharko da.
- Proiektua bukatutakoan, diruz lagundutako entitateek hilabeteko epean aurkeztu beharko dute proiektua osorik burutu dela frogatzeko.
- Gastuak zehaztuta eta justifikatuta egon behar dira.

Beste xedapen batzuk

- Diruz lagundutako proiektuak hedabideetan, sare sozialetan edo bestelakoetan zabaltzen dituztenean, Gipuzkoako EHAEOn aipamena egin beharko dute onuradunek. Gainera, diruz lagundutako proiektuaren inguruan bideoak, kartelak edo bestelako jatorrizkoak sortzen badira, Gipuzkoako EHAEOn logotipoa agertu beharko da.
- Gipuzkoako EHAEOk eskubidea izango du diru-laguntza eskuratu du(t)en proiektua(k) zabaltzeko.
- Deialdi honetara proiektuak aurkezteak oinarriak onartzea dakar.



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

LANKIDETZA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO DIRU- LAGUNTZAK

2024

PROIEKTUAREN LABURPEN-ERANSKINA (gehienez 10 orrialde)

PROIEKTUAREN IZENBURUA:

- Izenburua

ELKARGOKIDE DEN ARKITEKTOA:

- Izen-deiturak
- Elkargokide zenbakia
- Harremanetarako datuak

ERAKUNDE ESKATZAILEA:

- Izena
- Helbidea

PROIEKTUAREN ARDURADUNA:

- Izen-deiturak
- Harremanetarako datuak

PROIEKTUAREN KOKAPEN ZEHATZA:

- Herrialdea
- Eremuaren ezaugarriak

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA:

- Azaldutako irizpideen arabera justifikazioa

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

- Helburu orokorra
- Helburu zehatzak
- Garatuko diren ekintzak
- Giza-baliabideak eta baliabide materialak

EGUTEGIA:

- Proiektuaren hasiera
- Proiektuaren iraupena



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

ONURADUNAK:

- Pertsona onuradunak

AURREKONTU OSOA ETA BANAKATUA

- Aurrekontua

DIRU-LAGUNTZA ORDAINTEZKO BANKUKO KONTUAREN ZK.:

- Kontu korrante zenbakia